

ERLIJIO ZERBITZUA



AGURRA

Agur bero bat Donostia Ospitaleko Erlijio Zerbitzuaren izenean. Hemen zauden bitartean zure zerbitzura egon nahi dugu. Kristo Salbatzailearengan dugun sinismena zurekin bizi eta zure gaixotasunean lagundu nahi genizueke.

Gure zerbitzatu nahi izateak berarekin dakar zureganako begirune erabatekoa.

Zure sinismena edo pentsamoldea edozein izanik ere zure esanetara gauzkazu.

Ondoezik bazaude ere, ez diozu kristau-elkarteko kide izateari utzi.

Elkarte horrekin bat egin eta bere bizitzan Sakramentuen ospakizunen bidez esku har dezakezu.

EUKARISTIA

Kapera Aratzazuko Ospitaleko, sarrera ondoan daukazu, eskuin aldean.

MEZA-ORDUAK

Astegunetan:

Arratsaldeko
sei eta erdietan (18,30)

Igande eta Jaiegunetan:

goizeko zortzi eta erdietan (8,30) eta
hamaiketan (11,00). Arratsaldetan
ez dago Mezarik.

JAUNARTZEAK

Kaperara joaterik ez
baduzu, hemengo
apaizok egunero
eramaten diogu Jauna
bere gelara hala nahi
izan eta eskatu
duenari.



GAIXOEN OLIADURA

Sakramentu honen bitartez Jesukristo bera hurbiltzen zaizu zure gaixotasuna fedez bizitzen laguntzeko.

Sakramentu hau har dezakezu baldin:
gaitzak edo urteek ahuldu
bazaituzte; ebakuntza larri edo
kezagarriren bat egitekoa
bazara.

AITORTZA

Sakramentu hau Jainkoarekin eta
senideekin adiskidetzea da.

Barkamena du izateko
arrazoia eta zenbait barrengo
egoeratan Jaunartzeko
ezinbestekoa da.

Kaperan egin dezakezu,
Meza aurretik edo
Meza ondoren edo,
hala nahiago baduzu,
zeure gelan.



APAIZA NOLA AURKITU?

Zauden solairuan: zure ezrbitzura
dauden langileei eskatuz; Kaperan:
meza-orduetan; Ospitaleko ate
nagusiko sarreran: telefonistari gure
galde egin dezaten eskatuz.